

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Gure proiektua lan orientaziorako aplikazio digital bat da, erabiltzaileei beraien gustu, interes eta gaitasunen arabera lanpostu egokiena eta soldata handiena eskaintzen diena. Zerbitzu digitala denez, gure balio-proposamena bezeroengana helarazteko kanal digitalak izango dira nagusi, batez ere gazteak helburu ditugulako. Kanal hauek funtsezkoak dira gure bezero-segmentuekin harremanetan jartzeko eta proiektuaren arrakasta bermatzeko.

Banaketari dagokionez, gure produktua online bidez eskainiko da erabat. Banaketa-kanal nagusia mugikorreko aplikazioa izango da, Android eta iOS sistemetarako erabilgarri egongo dena. Aplikazioa erabilerraza eta intuitiboa izango da, gazteen beharretara egokitua. Erabiltzaileek galdetegi bat beteko dute aplikazioaren barruan, eta galderei emandako erantzunen arabera, lanpostu gomendio pertsonalizatuak jasoko dituzte, lanbidearen gustuko maila eta lortu daitekeen soldata kontuan hartuta. Horrez gain, webgune bat ere izango dugu, informazio orokorra eskaintzeko eta erabiltzaileak aplikazioa deskargatzera bideratzeko.

Komunikazioari dagokionez, hainbat komunikazio-kanal erabiliko ditugu gure proiektua ezagutarazteko eta bezeroekin harreman zuzena izateko. Alde batetik, sare sozialak izango dira gure tresna nagusietako bat, bereziki Instagram, TikTok eta YouTube. Plataforma hauetan eduki labur, erakargarri eta dinamikoak sortuko ditugu, gazteen arreta erakarri eta aplikazioaren funtzionamendua modu errazean azaltzeko. Bestetik, ikastetxeekin lankidetzat sustatuko dugu, orientazio akademikoko saioetan edo tutoretzetan aplikazioa aurkezteko, ikasleek etorkizuneko erabakiak hartzeko laguntza-tresna gisa erabil dezaten.

Gainera, publizitate digitala erabiliko dugu, batez ere gazteei eta gurasoei zuzenduta, Interneten eta sare sozialetan iragarkien bidez. Horrela, aplikazioaren ikusgarritasuna handitzea eta erabiltzaile gehiago erakartzea bilatuko dugu. Horrez gain, ahoz-ahoko komunikazioa ere garrantzitsua izango da; erabiltzaile pozikek aplikazioa beste pertsoneri gomendatzea espero dugu, horrek konfiantza sortzen duelako eta proiektuaren hedapena modu naturalean bultzatzen duelako.

Azkenik, gure kanalek bezeroarekiko harremanaren fase guztiak betetzen dituzte. Lehenik, pertzepzio-fasean, erabiltzaileek aplikazioa ezagutzen dute sare sozialen eta publizitatearen bidez. Ondoren, ebaluazio-fasean, webgunean eta aplikazioan eskaintzen den informazioari esker, erabiltzaileek zerbitzua baloratu dezakete. Erosketa-fasean, aplikazioa deskargatzen dute. Entrega-fasean, galdetegiaren emaitzak eta lanpostu gomendioak jasotzen dituzte. Azkenik, salmenta ondorengo



fasean, erabiltzaileen iritzia kontuan hartzen dira eta aplikazioa etengabe hobetzen da.